



Sentsibilizazio ekitaldiak non-nahi, astebetez

TOLOSALDEA ▶ Mugikortasun
Iraunkorraren Astea antolatu dute
eskualdeko hainbat herritan

AUTOA ▶ Autorik Gabeko Eguna
izango da hilaren 22a; gaur, lehen
jarduerak Anoetan eta Iruran ▶ 2-3

TOLOSA ▶

**Garagardoa
aitzaki,
festa giroa
Zerkausian**

Gaur zabalduko dute
Garagardo Azoka ▶ 3



Eskola ingurua txukuntzen eta parkeko egokitzapen lanak ari dira egiten

ARESO ▶ Herriko parkean egokitzapen lanak ari dira egiten egunotan. Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, iaz eskolako teitua berrituta eta ur eta hezetan arazoak sahistuta, jostailuen azpian babesak jartzen ari dira orain. «hor jostetan ibiltzen diren umeei min har ez dezaten». Era berean, eskola ingurua «txukuntzen» ari dira. Lan horiek 130 mila euroko aurrekontua izan dute. Horietako 73 Nafarroako Gobernuak eta Pake Toki elkarteak emandako diru laguntzekin ordaindu ditu Udalak. «Gustura gaude lortutako laguntzekin», azaldu dute. J. ASTIBIA ▶ 7

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Euskara herrian bertan ikasteko erraztasunak emanez

Eskaintza aurkeztu dute bi udalek;
diru laguntzak emango dituzte ▶ 4

IBARRA ▶

**'Labourd
1609' filma
ari dira
egiten**

Gaur, informazio
bilera plazan ▶ 6

ALEGIA ▶

**Jai giroan murgilduko
dira bihartik igandera
Kalebeherakoak**

Parkea izango da aurten festagune,
San Joan kalearen ordezkari ▶ 5



**'SAN INAZIO'
MEDIKU ZENTROA**

R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarien ondoan) • TOLOSA
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA ▶

EGITARAUA ▶ HERRIZ HERRI

ADUNA

Astearte, hilak 20.

20:00etan, Kultur aretoan, *Udalerría eta ingurumena* hitzaldia.

ANOETA

Gaur. Bizikleta txekoia plazan, 17:00etatik 19:00etara, Oriako txirindulari eskolak antolatuta: *Ekarri zure txirinda eta prestatu igandeko marxarako!*
Osteguna, hilak 22. Autorik Gabeko Eguna: *Denok ikastolara oinez edo txirindaz!* Txirindaz joateko plazan geratuko dira, 08:45ean. Haur Hezkuntzako ikasleentzat ginkana ikastolan arratsalde guztian, Oriako txirindulari eskolak antolatuta.

ASTEASU

Bihar. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, garraio publikoaren erabilera, bizikleten erabilera... LH3-4ko ikasleek 09:00etan. Egunez tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.
Etzi, larunbata. *Ezagutu zure bizikleta.* 11:00etan eskolako patioan bizikleta puntuan jarri —«ekar ezazu zure bizikleta eta Aiztondo txirindulari elkarteko bitartez konpontzen lagunduko

dizute»—; bizikleta jolasak —jolasteko behar-beharrezkoa da kaskoa ekartzea— eta Asteasuri bira— bizikletaz herriaren inguruan ibilbide polita egiteko aukera; ez ahaztu kaskoa—.

Osteguna, hilak 22. Kotxerik Gabeko Eguna: LH1-2ko ikasleek muralak marraztuko dituzte; neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... LH3-4ko ikasleek 09:00etan; LH5-6ko ikasleek irratsaioa Txolarre irratiaren eta 20:30ean diapositiba emanaldia eskainiko du Joxean Azkue eta bere lagunek Munich-Suiza bidaiaren inguruan.
Ostirala, hilak 30. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... LH3-4ko ikasleek, 09:00etan.

IRURA

Gaur. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... LH3ko ikasleek, 09:00etan. Egunean zehar tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.

Osteguna, hilak 22. Autorik Gabeko Eguna. 09:00etan irakasleak Etxezarreta kaletik

hasiko dira pixkanaka-pixkanaka haur guztiak ikastolara oinez gerturatzen; «dibertigarria» dela eta, eguerdian, modu berean bueltatuko dira. San Migel plaza egun guztian oinezkoentzat bakarrik izango da zabalik. Ondoren, neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... Murala marraztuko dute ikastolan 15:00etatik 17:00etara.

Astelehena, hilak 26. Bizikleta puntuan jarri: ekar ezazu zure bizikleta eta Oria eskolakoek konpontzen lagunduko dizue, 15:30etik 17:00etara.

Astearte, hilak 27. Bizikleta jolasak: Oria txirindulari eskolakoek antolatuta —behar-beharrezkoa kaskoa ekartzea— 15:30etik 17:00etara.

Astelehena, urriak 3. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... LH3ko ikasleek, 09:00etan.

TOLOSA

Bihar. Mugikortasun iraunkorrari buruzko mezuak dituzten banderolak jarri eta hiribusari buruzko informazioa duten txartelak banatuko dira: egutegia eta ibilaldia. 17:30ean

Andre Maria plazan Apika ipuin kontalariaren saioa *Klik-Klak* obrarekin, Haur Liburutegiak antolatuta, eta txokolate banaketa. Euria eginez gero, Berdura plazan izango da.

Etzi, larunbata. Goizean Triangulo plazan mugikortasunari buruzko irratsaioa, elkarrizketa eta kale jarduerekin. Pedalaren Eguna: 17:00etan, txirindulari proba herrian zehar, Oriako txirindulari eskolak antolatuta. Kaskoa derrigorrezkoa izango da. 18:00etan zine saioa, Kultur Etxean, *Azken tren* filma, Topaguneak antolatuta.

Asteazkena, hilak 21. Mugikortasun Mahaiaren bilera: *Mugikortasun planaren eta bidegorriaren sarearen aurkezpena.* Udaleteko pleno aretoan, 19:00etan.

Osteguna, hilak 22. Goizean Tolosako ikastetxeek *Lanera, nire kotxerik gabe* leloa aldarrikatzeko ekitaldian parte hartuko dute. Ikastetxez ikastetxe lekuko bat pasatuko dute, eta zentro guztiak lotzen dituen ibilaldia osatu. Kalea jolasteko izango da: 17:00etatik 20:00etara Plaza Zaharran eta Andra Maria plazan, haur eta gazteentzat ekintzak. Euria eginez gero, Zerkausion.

Ostirala, hilak 23. Carmen Miralles, Bartzelonako Eskualde eta Metropolik ikasketen institutuko zuzendariaren hitzaldia: *Mugikortasuna generoaren ikuspuntutik*, 11:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

VILLABONA

Bihar. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... Fleming eskolako LH6ko ikasleek, 10:00etan. Tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.

Etzi, larunbata. Bizikleta puntuan jarri: ekarri zure bizikleta eta Irrintzi txirindulari elkartekoek konpontzen lagunduko dizute. Plazan bertan bizikleta jolasak egingo dira, 11:00etatik 13:30era, Errebote plazan.

Astelehena, hilak 19. Ina Rufó abenturazaleak txirindan egindako bidaia *Trans Europea 2001* diapositiba emanaldia.

Osteguna, hilak 22. Kale Berria ibilgailuentzat itxita egongo da, eta Kale Nagusia oinezkoentzat bakarrik. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... Fleming eskolako LH6koek, 10:00etan.

Autorik gabe, hobe!

Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu dute eskualdeko hainbat herritan; hilaren 22an Autorik Gabeko Eguna izango da, eta askotariko ekitaldiak antolatu dituzte Europako egun horren harira

I. ETXEBESTE- N. LATABURU

Hil honen 22an Kotxerik Gabeko Eguna egingo dute Europar; honen harira Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu dute eskualdeko hainbat herritan, gaur hasi eta urriaren 3a bitarte. Autorik Gabeko Eguna bera izango da horietan ga-

rantzitsuena. Gainera, herri bakoitzak bere egitaraua prestatu duen arren, elkarrekin egingo dute Erniopeko Zizurkil-Tolosa-Zizurkil txirindulari bira. Zizurkildik irtengo dira igandean, hilaren 18an, 10:00etan.

Anoetako ikastolatik pasatuko da 10:45ak aldera, hortik Tolosara joateko. Ondoren, bide beretik egingo dute buelta. Bira Zizurkilen amaituko da, eta han hamaiketako eskaini eta euria egiten duenerako kapak banatuko zaizkie partaide guztiei. Antolatzaileek adierazi dute «autoa egun batez ahaztu eta bizikleta garraibide moduan ibiltzeko aukera paregabea» dela: «Zure osasunak eta ingurumenak eskertuko dizute, zatoz!», horrela egin dute bira parte hartzeko deia.

Txirinda proba gehiago ere izango dira Tolosan Mugikortasun Iraunkorraren Astearen



Autorik Gabeko Egunean ekitaldi andana antolatu dituzte eskualdean. Argazkian, iazkoa, Zizurkilen G. AZKUE

barruan, etzi, larunbata 17:00etan. Herrian barrena garatuko den proba maila desberdinetan banatu dute antolatzaileek: 5 eta 8, 9 eta 10 eta 11 eta 12 urte birtartekoak.

Parte hartu nahi dutenek irteera baino ordubete lehenago eman beharko dute izena. Lehen sailkatuak 90 euroko saria jasoko du; bigarrenak 60 euro eta hirugarrenak 30. Txirindu-

lari guztientzako kaskoaren erabilera derrigorrezkoa izango da.

Bestalde, udal liburutegiak haur eta gazteentzako ekintzak antolatu ditu hilaren 22rako.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Datozen egunetan mugikortasun asteak egingo dira eskualdean eta datorren 22an Kotxerik Gabeko Eguna izango da. Zu nola joaten zara lanera edo ikastera? Oinez, bizikletan, autobusean, autoan, motorrean... Eman zure botoa.

VII. GARAGARDO AZOKA ▶

Pitxerrak prest VII. Garagardo Azokarako

Gaurtik igandea bitartean garagardoa festa bihurtuko da

Ostirala, hilak 30. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera...

ZIZURKIL

Bihar. Tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak banatuko dira.

Etzi, larunbata. Bizikleten txekoak doan egingo dira 11:00etatik 14:00etara Joxe Arregi plazan.

Asteartea, hilak 20. Herriko giza eragileek Zizurkilgo mugikortasuna eta irisgarritasuna aztertuko dute. Ubare auzoko obren aurkezpena. Parte hartu nahi dutenek udaltekian izena eman dezakete dagoeneko.

Asteazkena, hilak 21. Tolosako Aholkularitza Batzarrarekin bailarako mugikortasunaren inguruko proposamenaren azterketa egingo dute, *Unibertsitatea helmuga*.

Osteguna, hilak 22. Autorik Gabeko Eguna. «Autoa etxean utzi eta oinez ibili edo garraio publikoa erabili». 19:30ean Ina Ruforen *Transeuropea 2001* diapositiba emanaldia izango da ikusgai Atxulondo kultur etxean.



Iazko Garagardo Azokara jende andana hurbildu zen. AMAIA BELAUZARAN

Askotariko guneak prestatuko dituzte egun honetarako. Bate-tik, haurrentzako txokoa izango da, Haur Liburutegia kalera aterako da, eta marrazteko aukera eta bolotan edo soka saltoan aritzeko gunea izango dira aukeran. Bestetik, Oriako txirriindulari taldeak ginkana antolatuko du, zeinean derri-gorrezkoak izango den nork bere txirrin eta kaskoa eramatea. Gaztegunek ere herri kirolen gunea egingo du: toka, zaku lasterketa, sagar bilketa, lokotx bilketa... Once eta Gaintzen erakundeek ere tailerak prestatuko dituzte, itsuek eta gormutuek mugikortasunaren inguruan dituzten oztopoez jabetzeko. Honekin batera, hiru asteetan zehar Tolosako ikasle guztiek aukera izango dute ekintza didaktiko bate bidez bizikletarekin bat datozen gaiak lantzeko: segurtasuna, ingurumen-onurak, osasuna eta txirriindularitza...

Iurako plaza itxita

Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela eta, hainbat kale eta plaza itxi egingo dituzte. Esaterako, Iurako San Miguel plaza itxita egingo da, hilaren 19tik 23ra, 14:00etatik 20:00etara. Autoek ezingo dute, beraz, bertatik igaro.

NEREA LIZARTZA

Garagardo Azokaren zarpigarraren edizioa atek zabaltzear dago; lau egunetako festa, beraz, hastear dago. Izan ere, irailaren 15etik 18ra bitartean garagardoaren festa izango da nagusi Tolosako Zerkausion. Arratsaldeko sei-etatik gauerdia bitartean egongo da zabalik Azoka.

Urtero bezala, jende zaparrada espero dute antolatzaileek; horretarako, 1.500 eserleku inguru jarri dituzte. Halere, zutik egoteko lekua ere egongo da. Urtetik urtera Garagardo Azokara jende gehiago joaten dela adierazi dute antolatzaileek. Gutxienez, joan den urteko arrakasta berdintzea izango da aurtengo azokaren jomuga.

Baina garagardoa ez da, jada, azoka honen bereizgarri bakarra. Izan ere, salbitxak eta ukondoa jatea ere usadio bihurtu da urteroko bisitarien artean. Aurtin ere, eskualdeko gastronomia zaintzea izango dute ardatz antolatzaileek; urtero bezala, Ibarrako Piperren mokaduez gain, Altuna harategiak prestatutako saltxitxak ere salgai egongo baitira. Modu honetan, azokara joaten den jendea eskualdeko produktua dastatzera bultzatuko dute.

Gaur arratsaldeko zortzietan Udal ordezkariak izango dira dultzaineroen eta txalapartarien doinuaren artean, Garagardo Azokari harrera ofiziala egingo diotenak.

Garagardo Azoka dela-eta antolatzen diren ekitaldiak, Mugikortasun Iraunkorraren Astearen eta Ipuinararte I proiektuaren ekitaldiekin batera egokitu dira; hori dela eta, hiru egitarauak uztartzu bakar-eragea erabaki dute. Aspertzeko betarik, beraz, ez da izango lau egun hauetan zehar.

Baina azokaren arrakastaren atzean urte osoko lana dago; izan ere, hainbat eta hainbat pertsonak egiten dute lan urte osoan zehar guztia ongi irten dadin lau egunotan. Hala ere, lanik handiena eta gogorra aste honetan izaten da; alde batetik, Zerkausia jendea hartzeko prestatu behar delako, eta bestetik, berriz, janariak prestatzen, edariak zerbitzatzeko... egotea beharrezkoa delako.

Festa hau guztia antolatzeko hiru talde aritu ohi dira elkarlanean: Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldea, Hegoalde futbol taldea eta Judo Klub Tolosa, hurrenez hurren. Garagardo Azoka antolatzearen xedea hiru talde horientzat dirua lortzea da.

ZENBAIT DATU ▶

GARAGARDO MOTAK

- Affigen. Iluna.
- Apaten Bock. Horia.
- Bass Pale Ale. Iluna.
- Beck's. Horia.
- Buckler 0°. Horia.
- Ekhi. Horia.
- Frankeinheim. Iluna.
- Franziskaner. Horia.
- Guinness. Beltza.
- Hoegaarden. Zuria.
- Isembeck Dark. Iluna.
- König Ludwig. Zuria.
- Leffe. Horia.
- Leffe. Gorria.
- Leffe. Beltza.
- Louny G.P 10. Horia.
- Louny G.P 12. Horia.
- Louny G.P 12. Iluna.
- Murphy's. Gorria.
- Paulaner. Horia.
- Paulaner Original Munchen? Horia.
- Paulaner Salvator. Beltza.
- Tennet's Stout. Beltza.
- Tolosako Garagardo Berezia. Iluna.
- Urtyp. Horia.
- Warsteiner. Horia.

EGITARAU ▶

GAUR

20:00. Txalapartariak eta dultzaineroak Zerkausion, azoka inauguratzeko.

BIHAR, OSTIRALA

20:30. Tolosako Bandaren emanaldia Zerkausion.

ETZI, LARUNBATA

- 17:00.** Pedal Eguna San Frantziskon eta pailazoak Lopez Mendizabalen.
- 20:00.** Vista Alegre txaranga Zerkausion.
- 23:00.** Jum-Jum perkusio taldea Andra Mari plazan, Irazki elkartearen eskutik.

IGANDEA, HILAK 18

- 11:00.** Bizikleta marxa.
- 17:00.** Zirko lantegia Trianguloan, haur jolasak...
- 18:30.** Xakea Plaza Zaharrean.



Garagardo Azokako kartela.

KULTURA ▶

Aurrera darrai La Jara elkartearen Kultur Asteak

Gaur ere izango da zer ikusi La Jara antolaturiko Kultur Astearen barruan. Izan ere, 18:00etatik aurrera, eskualdeko janariaren erakusketa egingo dute euren egoitzan: patata tortillak, tomate zukuak, entsaladak, gazpatxoak... Guztia Puerta Palma ardoaren dastaketarekin.

EUSKARA ▶

Irazkiren euskara klaseak hilaren 24an hasiko dira

Irazki kulturazinduz elkartek jakinarazi du aurtin ere euskara klaseak antolatzeko asmoa duela. Haurrentzat eta helduentzat izango dira eskola horiek, eta hilaren 24ean, larunbata, hasiko dira. Iazko ikasleek eta euskara ikasi nahi duten ikasle berriek telefono zenbaki honetara deitu beharko dute izena emateko: 678 63 83 94.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozen dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ EUSKARA

Euskara herrian bertan ikasteko aukera emanez

Villabonako eta Zizurkilgo udalek euskara ikasteko aukerak aurkeztu eta herritarrek animatu dituzte izena ematera



Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea atzoko aurkezpenean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Villabonako eta Zizurkilgo udalek, Bakartxo Tejeria eta Marian Lazkano bi alkateen bidez, euskara ikastea bultzatzeko asmoarekin martxan dituzten bi proiektuen aurkezpena egin zuten atzo. «Billabonatarekin eta zizurkildarrekin beren herrian euskara ikastea da asmo nagusia», azaldu dute bi udalari buruzko erantzunak. Horrela, diru laguntzak emango dizkiete herritarrei, matrikulazioaren %75a, bai herrian bertan euskara ikasten duenari, bai beste herriren batera joan behar duenari ere. Bi udalari buruzko erantzunak ez ezik, inguruko herrietako ere zabaldu diete deialdia. «Euskara ikasteak ahalegin handia suposatzen du, eta bi udalek ere ahalegina egin nahi dugu

erantzunak emateko», azaldu zuten Bakartxo Tejeriak.

Helduei eta atzerritarrei zuzendutako taldeak sortu nahi dituzte. Horretarako gutxienez ikasle kopurua behar da, eta horregatik bi alkateek biziki animatu zuten jendea izena ematera. Villabonako euskaltegia ikasle faltagatik itxi zuten orain gutxi, eta horregatik berretsi zuten jendeak izena emateko beharra. Aurreko urtean Villabonan sortu zen talde bat eta aurten bi talde sortzea espero dute, bi herriek egindako deialdia baliatuz.

Etorkinentzat ikastaroa

Bestalde, Aisa programa martxan jartzeko aukera agertu dute. Atzerritarrei zuzendutako ikastaroa da, eta taldea osatzeko ere gutxienezko kopurua be-

harrezkoa izango da. «Gero eta atzerritar gehiago daude herriotan eta interesgarria litzateke hauek euskara ikastea, gutxienez hizkuntza ulertzea», azaldu dute bi alkateek. «Badakigu zaila dela horrelako ikastarorako jendea erakartzea, baina ahalegina egin nahi dugu». Programaren helburua «etorkinek hemengo gizartea, ohiturak... ezagutu eta euskara ikasteko lehendabiziko urratsak ematea» da. Guztira 60 orduko iraupena du ikastaroak, astean sei ordu, hiru egunetan banatuta. 10 euroko prezioa du ikastaroak.

Beraz, Villabonan eta Zizurkilgo bertan euskara ikasi nahi duenak badu aukera. Izena emateko epea hilaren 28an amaituko da, eta horretarako bi herrietako euskara zerbizuetara jo behar da.

ANOETA ▶ GIZARTEA



Erniora martxa «aldarrikapen egun» modura antolatu dute

Erredakzioa ▶ Igande honetan, hilak 18, Anoetako Gazte Asanblada, Anoetarrok Auzolanean herri plataforma eta AHT Gelditu! Elkarlana-k «aldarrikapen eguna» antolatu dute Erniora igoera eginez. «Anoetarrok eta orokorrean gizarteak pairatzen dituen inposaketa eta eskubide urraketak salatuko ditugu», azaldu dute gizarte eragileek. «Besteak beste, euskal presoen egoera, AHT eta bestelako proiektu txikitzaileekin pairatzen dugun inposaketa, pairatzen dugun *apartheid* politikoa...». Horrela, herritar oro gonbidatzen dute 09:00etan igandean Anoetako plazatik abiatuko den martxan parte hartzera. HITZA

ANOETA ▶ IKASTAROKAK

Yoga ikastaroa martxan jarriko dute urrian

Parte hartzeko interesa dutenek hilaren 23a arte izango dute aukera izena emateko

I. GARCIA

Anoetako Udalak yoga ikastaroa jarriko du martxan auri. Hiru hilabeteko ikastaroa izango da, urriaren 3an hasi eta abenduaren 21eraino. Klaseak Hozpel, 5-eko udal lokalean izango dira, astean behin. Aukerak ondoko hauek dira: astelehenean 18:30etik 20:00etara; asteartean 09:30etik 11:00etara; eta asteazkenean 18:30etik 20:00etara.

Ikastaroaren prezioa 41,20 eurokoa da hiruhilabetea. Udalak zuzenean ikasleentzako kontu korrontetik kobratuko du matrikula; beraz, izena emateko garaian kontu korrontearen zerbizuetara jo behar da. Haiz zuzen, hilaren

23an amaituko da izena emateko epea. Udaletxera joan behar da horretarako, 09:00etatik 13:00etara.

Ernioko erromeria

Anoetako Udalak Ernioko erromerira joateko autobusa antolatu du igande honetarako, hilak 18. Autobus zerbizua doan izango da eta Alkizara eramango ditu mendizaleak. 09:00etan irtengo da plazatik eta buelta 18:00ak aldera izango da. Eurria eginez gero, 14:30ak aldera aterako da autobusa.

Gaur da azken eguna izena emateko, eta udaletxera edo ikastolara joan behar da horretarako.



Udaltalde 21 Ernioaldeak
Europear Mugikortasun Iraunkorraren Astean zehar ospatuko dituen ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaitu.

PARTAIDEAK:



ADUNA



ANOETA



ASTEASU



HERNALDE



IRURA



VILLABONA



ZIZURKIL

ALEGIA ▶

Ikastaroetako
izen-ematea
zabalik da

Intxio Begiristain kultur eta kirol etxean ikastaroak antolatzen dituzte 2005-2006 ikasturterako. Aerobika, mantentze gimnastika eta 3. adinekoentzat gimnastika egiteko aukera izango da. Izen-emate epea irekita dago, eta kultur eta kirol etxean eman daiteke, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara.

BIDEGOIAN ▶

Gaur da
ikastaroei
buruzko bilera

Saias Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearen eskutik, hainbat ekintza eta ikastaro antolatzeko asmoa dute 2005-2006 ikasturteari begira. Horiei buruzko bilera batera deitu du gaurko mankomunitateak, Bidanian. 18:00-etarako deitu ditu interesa duten guztiak, udaletxeko bigarren solairuan. Bertan proposamenak aurkeztuko dituzte, baina bilera doan edonork bere proposamenak gehitzeko aukera izango du.

ALEGIA ▶

Jubenilek
garaipenarekin
hasi dute urtea

Intxurreko jubenilek larunbatean jokatu zuten denboraldiko lehen partida. Etxean jokatu zuten, eta aurrean Texas lasartearra taldea izan zuten. Partida parekatua jokatu zuten bi taldeek, baina azkenean Joxean Otañoren mutilek hiru puntuak etxean geratzea lortu zuten. Intxurreko beste taldeek asteburuan ekingo diote denboraldiari. Lurreldekoek Donostiako Herrera zelaian jokatu dute Axular taldearen aurka igande arratsaldean. Kadeteek atsedena izango dute. Gazteek, aldiz, Andoaino Allurralde zelaian jokatu dute Euskalduna taldearen aurka, larunbat arratsaldean.

ALEGIA ▶ JAIK

Asteburuan jai giroa
nagusituko da urtero
bezala Kalebeheran

Aurten festagunea parkea izango delarik, urteroko emaitza onak ematen dituen egitarau berdintsua antolatu dute



Giro bikaina izaten da urtero herri bazkarian. Argazkian, izako bazkariko une bat. MAIDER JAUREGI

JULEN GOIKOETXEA

Askorentzat irailak lanera itzuli beharrenean zama dakar. Alegiarrentzat eta, batik batik, kalebeherarentzat, festa garaia izaten da iraila. Izan ere, urtero legez, bertako jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Ostiralean hasi eta igandera bitartean, urteroko egitarauari utsiz, ekin-tza ugari izango dira ikusgai.

Txupinazoa bihar botako bada ere, festetako lehen ekintza gaur gauean izango da. Izan ere, 21:30ean, zine klubaren barruan, emanaldi berezi bat izango da parkean. *Bombon, el perro* filma eskainiko dute.

Bihar, ostirala, arratsaldeko zazpitan emango zaie hasiera jaiak. Ohiko suziri eta buruhandiek gaztetxo askoren korrikal-

diak eta beste hainbat malako eragingo dituzte. 19:30ean Kalebeherako jaietako ekintzarik entzutetsuena eta *eztabaida* gehien sortzen duena burutuko da; patata tortilla lehiaketa, hain zuzen ere. Bertan parte hartzen dutenek sukaldarako duten abilezia erakutsi behar izaten dute ikusle guztien aurrean, eta aurreko edizioak ikusita, askok dezente hobetu beharko dute aurten epaimahaiaren saria jaso nahibadute. Hainbeste tortilen artean irabazlea hautatu ostean,

zahagiardoa izango da egindakoa jateko, edo beste hainbat kasutan eginikoa albo batera utzi eta beste zerbait jateko. Lehen egunari amaiera emateko Eugenio eta Aitziber trikitilarien saioa izango da gaua alaitzeko eta, bide batez, gorputza astintzeko.

Larunbatean, kirol ekintzak izango dira nagusi egun osoan. Goizean, krosa izango da. Lehenik, herriko txikiak korrikarako dituzten dohainak erakusteko aukera izango dute guraso eta herritarren aurre-

an; eta, ondoren, ordu gutxi lo egindakoek ongi prestatutako ei egin beharko diete aurre. Urteroko ibilbidea izango dute aurten ere korrikalariak eta, ohi bezala, zubi zaharreko al-dapak erebaki lezake lasterke-ta. Arratsaldean, pala txapelketa herrikoa izango da parkean. Bezeperako ajea pasatzen laguntzeko jarduera ederra izan daiteke. Iluntzean, zagiardoa afaltzeko aukera izango da. Eta afalostean, bertso saio batez gozatzeko. Lau bertsolari igoko dira taula gainera: Iker Zubeldia zegamarrak, Ibai Esoain eta Xabier Sukia oriotarrek eta Iker Iriarte, Tolosan bizi den alegiarrek, Beñat Garmendiak jarritako gaien inguruan kantatu beharko dute. Ondoren, txirrisklas festa ospatuko da parkean, eta Irma eta Amets trikitilariak girotuko dute gaua. Atsedendian, txinga proba izango da.

Igandean, txakolin eta sagardo dastaketarekin hasiko da eguna. Edariari laguntzeko, gazta, urdaiazpikoa eta sardinak ere izango dira Eguerdiko aldera, herri bazkaria izango da urteroko ohiturari jarraituz. Bazkalostean, toka txapelketa jokatu dute. Arratsaldeari begira, kirola izango da protagonista berriro. 18:00etan, gaztetxoaren arteko pilota finalak jokatu dira parkeko frontoian, eta ondoren pala txapelketa jokatu da leku berean. Jaiak azken txanpan, zahagiardoa izango da eta, amaitezko, mus txapelketa jokatu da.

Aurten parkean

Aurtengo jaiak inguruan berrikuntza nagusi bat emango da. Jaiak parkean ospatuko dira eta ez San Joan kalean. Aldaketa behartua izan dela adierazi dute antolatzaileek. «Orain arte festak egiten ziren tokiko etxe bat hesituta dago eta, ondorioz, ez dago lekurik jaiak modu egokian egiteko». Beraz, bailarako beste herriek Alegiak hartuko die erreleboa asteburuan, jaiak dagokienez. Aukera bikaina dute, beraz, festarako gogoia dutenek.

JAKOAN

INGELESA

Tel. 943-652372
(10-12 eta 4-8)
GOROSABEL 2 1º
(TRIANGULOAN)
TOLOSA

IKASLE BERRIEI:

URRIAK 3an jarriko dugu martxan kurtso berria. Bakoitzari dagokion maila eta ordutegia erabakitzeke, interesaturik dagoena etor dadila ...
LEHEN BAIT LEHEN.

GURE IKASLEEI:

IRAILAK 19an jarriko dugu martxan kurtso berria. **MESEDEZ:** deitu edo etorri, ordutegia, maila eta beste guztiari buruz hitz egiteko.

ESKERRIK ASKO

LIZARBI
Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak • Zurgintza orokorra
Tailakesuz eginak Zaharkinen berriztatzea
San Esteban auzoa
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

IBARRA ▶ KULTURA

Alurr-ekoak ikasturte berriari ekiteko prest

Gaurtik hilaren 30era bitarte egingo dira matrikulazioak; urriko lehen astean hasiko dira dantzan ikasleak

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra dantzan... eta zu? Alurr dantza taldeak eta dantza eskolak lelo horrekin animatu nahi ditu herritarrek ikasturte berriari dantzari ekin diezaioten. Izan ere, gaur hasi eta hilaren 30era bitarte izango da matrikulazioak egiteko aukera.

Izen-ematea Ibarroko Benito Izagirre kultur etxean egin be-

harko da. Bertan egingo dira gestio guztiak, hau da, matrikulazio orria bete beharko da bankuko ziurtagiriarekin eta han entregatu.

Eskoletan dantzan ikasi ahal izango duen jendeari dagokionez, aurtun 4 urtetik gorako haurretatik hasita eta helduetara bitarte, nesken eta mutilen hainbat talde berri osatu nahi dituzte, adinaren arabera ba-

natuak. Hori bai, talde guztiak 12 lagunetik gorakoak izan beharko dute.

Behin talde guztiak osatuta, eskolak urriko lehen astean hasiko direla azaldu dute. Edu Muruamendiaren klaseek orain arte bezala jarraituko dute, ostegunetan, 17:00etan, 18:30ean eta 20:30ean; eta, hori bezala, pasa den urteko gainerako eskoletan ere hala

2005-2006 IKASTURTEA ▶

HELDUAK ETA GAZTEAK
Ordutegia.

▶ Asteazkena: 20:30-22:00.

Prezioak.

▶ Kurtso osoa (dantza desberdinak): 105 euro.

▶ Lau hilabetekoa (fandangoa eta arin-arina): 55 euro.

HAURRAK**Ordutegiak.**

▶ 4-5 urte. Astelehena: 16:30-17:30.

▶ 6-7 urte. Asteartea eta ostirala: 16:45-17:45.

▶ 7-8 urte. Asteartea eta ostirala: 17:45-18:45.

▶ 8-12 urte (berriak). Astelehena: 17:30-19:00.

Prezioak.

▶ Senide bakarra: 100 euro.

▶ 2 senide: 152 euro.

▶ 3 senide: 184 euro.

MUTILAK**Ordutegia.**

▶ 9-14 urte. Asteartea eta osteguna: 16:30-18:00.

Prezioa. 125 euro.**EDUREKIN****Ordutegia (berriak).**

▶ Asteartea: 18:30-20:00.

Prezioa. 165 euro.

izango dela jakinarazi dute arduradunek. Zehazturiko ordutegiak ongi ez datozkionari, aurreko urteetan antolatutako

klaseetan parte hartzeko aukera izango du; horretarako, 635 75 70 48 telefonora deitu beharko du.

IBARRA ▶ KULTURA

'Labourd 1609' filmean parte hartzeko aukera

«Herri guztiak parte hartzea» nahi dute; bihar 20:00etan egingo dute bilera herriko plazan

I. TERRADILLOS

Eneko Aritza film laburraren ondoren inkezioan oinarrituriko *Labourd 1609* film luzea egiten dihardute Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkartekoek.

Horrek dakarren lana dela eta, bihar bilera bat egitea erabaki dute, lagundu nahi duen oro ager dadin. Izan ere, haien helbururik handienetakoa «euskararen babesean herri guztiak parte hartzea da, lokalizazioetan, jantzetan, estra modura...». Eta horregatik jo dute herritarrengana, gogoratu ez direla profesionalak eta «animatzen denak ez duela beldurrik izan behar agertzeko». Hitzordua bihar izango da,



Filmaketako une bat. HITZA

20:00etan, Ibarroko San Bartolome plazan.

Bestalde, www.enekoaritzarenlagunak.net orrian aurki daiteke informazio gehiago.

ELDUAIN ▶ KULTURA



Harrera ona izan dute bertso musikatuak

I. Terradillos ▶ Pasa den astean Galtzaundi Euskara Taldeak Elduaingo Udalarekin batera antolaturiko bertso musikatuaren emanaldiak oso harrera ona izan zuen, eta jendearen gustukoa izan zen. Artistek beraien bertsoekin eta umore puntuarekin jendearen parte-hartzea bultzatu

zuten, bertsoaren aritu ziren bitartean antzeztu ere egin baitzuten. Halaber, abesten zituzten bertsoaren gaiarekin lotutako jantzi ezberdinak erabili zituzten. Kontzeju tabernan izan zen emanaldiak sorpresa puntua izan zuen, eta herritarrek giro ederraz gozatu zuten. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

LEITZA ▶ GIZARTEA

Goiz-goiz,
erromes Santa
Kruzera

Jaione Astibia ▶ Atzo Santa Krutz eguna zela-eta eliztar mordoska igo ziren ermitara, goiz-goiz abiatuta, Giltzurrituritik barrena, Gurutze Bidea eginez igo ere, urteroko ohiturari jarraituz. Eguna oraindik osotara argitzekoa zela ekin zioten bideari, herriko bi apai-za gidari hartuta. Ondoren, 9:00ak aldera, ermitan bertan meza entzuten zuten, «urtean hauxe izaten da aukera bakarra», zehaztu zuten. Han izanen zituzten zain bertara autoz joandako beste lagun mordoska bat. JAIONE ASTIBIA



TURISMOA ▶

Gaur bizikleta
martxarako
izena emateko
azken eguna

J. ASTIBIA

Gaur da igandean burutuko duten Plazaolan zeharreko bizikleta martxan garraio zerbitzua behar dutenentzat izena emateko azken eguna, atzo jakitera eman zuten. Plazaolako turismo bulegora, 948 50 72 04ra deituz, xehetasunak eskainiko dituzte. Autobusak Lekunberriatik Andoainera eta Leizara ere izanen dira, aukeratutako ibilbidearen arabera.

ARESO ▶ HIRIGINTZA

JAIONE ASTIBIA

Herriko parkean lanean ari dira Areson: jostailuen azpian babesak jartzen ari dira, «gomazko plantzak», Udaletik bertatik zehaztu dutenez, hain zuzen ere «hor jostetan ibiltzen diren umeek minik har ez dezaten». Egun hauetan lanak geldirik badaude ere, «plantzak jartzez hurrengo ateraldian bukatuko dute», eman zuten jakitera bertatik.

Eta lan honekin eskola inguruaren txukunketan Udalak bere gain egin dituen hainbat moldaketa bukatuko dituzte.

Lehenengo urtean eskolako teilatua berriro zuten erabat, eta euri-urek iragazketaz eragiten zituzten hezetasun arazoak ere konponduta omen daude. Aipatutako lan hauetaz «lan handiak ziren gure herrirako», zioten.

Aurrekontu handia

Izan ere, zehaztu zuten, 130.000 euroko aurrekontua izan dute lan horiek, «baina 73 mila dirulaguntzen bidez ordaindu ditugu», zioten. Nafarroako Gobernuko Hirigintzako departamendutik eta Etxebizitza departamendutik «lanen kostuaren %55» jaso dute eta, zehaztu zuten, herriko Pake Toki elkarteak ere

Herriko parkean ere
egokitzapen lanak
egiten ari dira

Eskolako teilatua eta ur eta hezetasun arazoak sahiestuta, inguruak erabat txukuntzeko lanetan ari dira



Jostailuen azpian babesak jartzeko ateraldiaren zain daude langileak. JAIONE ASTIBIA

rriko Pake Toki elkarteak ere berea eman du, «9.000 euro ja-

rri ditu lan hauetarako», argitu zuten. Elkarte hau eskolako

eraikuntza berean egonik, teilatua konponketan zego-

kion zatiarena. Horrela, herriak 57 mila euro ordaindu behar izan ditu lan hauengatik. «Ongi. Lortutako laguntza aldetik gustura gaude», iritzi zioten, «diru laguntza dezentea jaso dugu eta lanak merke» atara zaizkigu, esan baliteke», batoratu zuten.

Eta behin horrelako gastutan sartuta egonik, «eskolaren inguruan moldaketak egitea» egoki irudituta, beste lan batzuk ere egin dituzte, «hauek Udalaren kargu egiten ari gara», zehaztu. Eskola aurrean dagoen parkean zolaketa lanak egin zituzten lehendabizi, lehen zegoen harri txintarra kendu eta porlana botaz; eskolako errezintoa mugatzeko eta umeen ziurtasuna bermatzeko neurri modura, sarbideetan ere atekak jarri zituzten; eta, azkenik, parkeko jostailuen azpian aipatutako babesak jartzen ari dira. «Guztira beste 12.000 euroko inbertsioa», udaletetik adierazitakoaren arabera.

Lan hauekin bukatutaz joko lituzkete moldaketak, baina «oraingoz» soilik, halaxe nabarmendu zuten. Ziotenez, hasita omen daude eta, zer beste hobekuntza egin litekeen aztertzen: «Zer hobetua badago eta zer egin daitekeen pentsatzen ari gara», adierazi zuten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 943 69 19 33.

Neska. Legorretako neska behar da ebeko lanak egiteko eta umea zaintzeko. Deitu telefono honetara: 609 16 16 35.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean 4 orduz lan

egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 675 70 11 78.

Emakumea. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta ebeko lanak egiteko Iruran. Deitu telefono zenbaki honetara: 685 76 80 91.

ESKAINITZA

Langilea. Neska bat eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Interesatuak deitu ondoko telefono zenbaki honetara lehenbailehen: 617 14 94 41.

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Multivan TDI, 102 zaldikoa, SS-AW, egoera onean. Deitu telefono zenbaki honetara: 626 71 39 04 (14:00etatik aurrera).



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. EHNA tramitatzeko batzarra. 19:30ean, Benito Izagirre kultur etxean.
Tolosa. Extremadurako plateren lehiaketa: migak, patata tortilla, tomate zopa, caldereta, gazpacho, tomate entsalada, piperena, zorongollo (moje)... Guztia, Puerta Palma izeneko ardoen dastaketarekin. 18:00etan, La Jaran. Extremadurako Kultur Astearen baitan.

MUGIKORTASUN ASTEA

Anoeta. Bizikleta txekeoa plazan, 17:00etatik 19:00etara, Oriako txirrindulari eskolak antolatuta: *Ekarri zure txirrinda eta prestatu igandeko marxarako!*
Irura. Neurketak: zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... LH3ko ikasleek, 09:00etan. Tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak ere banatuko dira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5 FM)
11:30. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotza* magazina. Agenda, elkarrizketak, era guztietako gaiak...
13:10. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
13:15. Lehiaketaren eta disko eskainien tartea.
19:00-21:00. 19:00etatik 21:00etara, *Tolosaldeko Ahotza* saioaren errepikapena.
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskal Herria eta Mozambique

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gaztelugatxeko paraje ederrak eta Mozambiqueko Makua tribua jaso dituzte bi tolosarrek beren argazkietan



GAZTELUGATXE ▶

Iñaki Etxeberria Iriondo (Tolosa).

Euskal Herriko txoko ederretaz gozatzeko aukera izan du Iñaki Etxeberria tolosarrek bere opor egunetan. Honako argazkia bidali digu HITZAREN lehiaketara. «Gaztelugatxen hartu genuen irudi hau», azaldu du.

MAKUA TRIBUA ▶

Begoña Iraola (Tolosa).

Mozambikera egin du bidaia Begoña Iraola tolosarrek abuztuan, eta argazki alai eta koloretsu hau aukeratu du. Hala dio: «Kaixo, lagunok! Abuztuko oporetan ateratako argazkietako bat bidaltzen dizuet. Mozambiqueko Ibo irlan aterata dago, eta Makua tribuko emakume bat eta bere seme-alabak agertzen dira. Laster arte!».



AGURRAK ▶



ZORIONAK
Janire Aranzabe (Villabona). Gaur 2 urte. Zorionak, xagutxo!



URTE ASKOAN
Aniceto Sarasola. Zorionak ebekoen eta Miguelen partetik.



URTE ASKOAN
Julen Bengoa (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak aita, ama eta Manexen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5. behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitzake Tolosako HITZAren egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jatexean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako **ALDEZAHARRA** elkarteak